

32 zenbakia
2020ko abendua

bai

Bai Euskarari
Elkartearen aldizkaria

Lazarraga
sariak



Euskara,
lehiakortasunerako giltzarri

Rober Gutiérrez
[Zuzendaria]
@robergutierrez



Euskara, giltzarri

Lazarraga Sariak seigarren ediziora iritsi dira. Arabako Foru Aldundiak eta Bai Euskarari Elkartek 2010ean sortu zituzten Arabako lan munduan, alor sozioekonomikoaren espazio guztietan, euskararen erabileran eta sustapenean lan nabarmena egiten ari diren enpresak, entitateak edota pertsonak saritzeko, egindako lan hori aitortzeko, balioa emateko, eskertzeko eta haien eredia lurraldearen gainerako enpresen artean zabaltzeko.

Aurten, Lazarraga Sarien bitartez Bai Euskarari ziurtagiria duten lau entitate saritu dira: ARTgia Sorgune Aretoa, Bertako Igogailuak, Museo del Órgano jatetxe begetarianoa eta Uriarte Industrial. Lauak eredu garriak dira, pertsonen ongizatea erdigunean jarrita, etorkizuna euskaraz eraikitzen ari baitira.

Bertako-n, esate baterako, hori presente dute. Bezeroek informazioa bere hizkuntzan jasotzeko eskubidea dute eta, horregatik, dena euskaraz eskaintzea erabaki zuten. Langile guztiek ez dakite euskaraz, baina asistentzia euskaraz nahi duenak hizkuntza horretan jasoko du. Haien iritziz, euskara sustatzen duenak, errentagarritasuna lortuko du. ARTgiaren kasuan ere, euskara haien proiektuetako ardatza da, lana garatzeko eta disfrutatzeko tresna. Museo del Órgano jatetxean, halaber, jakitun dira Gasteizen eskertzekoa dela euskaraz lasai aritzeko aukera eskaintzen duen leku batera joatea, eta sinetsita daude eskaintza modu justuagoan eta jasagarriagoan egitea posiblea dela.

Bide batez, COVID 19ak baldintzatutako garai honetan konturatzen ari gara eredu inklusiboago bat behar dugula, dimentsio guztiak (soziala, ekonomikoa eta ingurugirokoa) aintzat hartuko dituen. Eredu horretan, euskara ere bada ongizaterako gako nagusietako bat, eta giltzarri bezala landu eta kudeatu beharko lukete gure administrazioek eta enpresek ere. Are gehiago, zalantza bateriko oraingo egoera honetan.

Gizarte honen garapen iraunkorrerako beharrezkoa izango da geroa elkarrekin eraikitzea, komunitate sendo bat osatuz norbanakook, erakundeek eta entitateek. Uriarte Industrial-eko lagunek dioten bezala, enpresak has daitezela euskara txertatzen elementu errazetatik, beldur barik. Gizartearen alor guztietara zabaltzen ari da hizkuntzaren erabilera, eta horri ausardiaz erantzun behar zaio.

Lazarraga Sariak 03

Irantzu Lekue.
ARTgia 04

Eneko Uriarte
eta Maider Uriarte.
Uriarte Industrial 06

Marco Bianchi.
Museo del Órgano jatetxea 08

Iban Sánchez.
Bertako igogailuak 10

Bai Euskarari
Komunitatearen txokoa 12

Irizpide berriak 12

Gernika-Lumo eta Zarautz 14

Albisteak motzean 15

Argitaratzailea: Bai Euskarari Elkartea
www.baieuskarari.eus

Martin Ugalde Kultur Parkea - 20140 Andoain
t. 943592148

1 Arsenal Plaza - 64100 Baiona t. 0524336196

Luzarra 10, 2-1 - 48014 Bilbo t. 673811048

Rogelia de Alvaro Elkarteen Etxea A.1.1.
Panama, z/g - 01012, Gasteiz t. 945215196

Martzelo Zelaieta, 75 U3 eraikina, 13. bulegoa
31014 Iruñea t. 673811048

Zuzendaria: Rober Gutiérrez

Kudeaketa eta erredakzio-taldea:
Bai Euskarari Elkartea eta Arteman Komunikazioa.

Diseinua eta maketazioa: dalvez

Argazkiak: Bai Euskarari Elkartea,
Arteman Komunikazioa, ARTgia, Museo del Órgano,
Bertako Igogailuak, Uriarte Industrial.

Inprimatzailea: Leitzaran

Banaketa: Bai Euskarari Elkartea

Lege gordailua: SS-497-2010

baieuskarari.eus



Euskara lehiakortasunerako giltzarri dute Lazarraga Saria jaso duten enpresek

ARTgia Sorgune Aretoak, ASASAM elkarteak, Uriarte Industrialek, Museo del Órgano jatetxe begetarianoak eta Bertako Igogailuek jaso dituzte 2020ko Lazarraga Sariak, Arabako alor sozioekonomikoan euskararen alde egindako lanaren errekonozimendugisa. Horietako lauk dute Bai Euskarari Ziurtagiria eta beraiei egindako elkarrizketak aurkituko dituzue aldizkari honetako hurrengo orrietan.



Koronabirusaren pandemiak hala behartuta, pantailaz bestalde jarraitu behar izan zen Lazarraga Sarien seigarren edizioaren sari banaketa ekitaldia. Edurne Begiristain *Berria*-ko kazetariak aurkeztu zuen eta bertan izan ziren, sari-dunekin batera, Rober Gutiérrez Bai Euskarari Elkartearen zuzendaria eta Lexuri Ugarte Arabako Foru Aldundiko Euskara eta Gobernu Irekiko zuzendaria.

Garapen iraunkorrerako giltzarri

Rober Gutiérrezek aipatu zuenez, euskara "garapen iraunkorrerako giltzarria" da eta "giltzarri bezala garatu behar dute administrazioak eta enpresek, are gehiago zalantzaz beteriko oraingo egoera honetan". Azpimarratu zuen, sarituek "lehiakortasunerako giltzarri" dutela euskara.

Lexuri Ugartek adierazi zuen "atzera urratsik egin ez duten pertsona eta entitateak" direla Lazarraga Saria jaso dutenak. Gaineratu zuen "aberastasunaren ikur" direla saridunak lurraldeko beste askorentzat.

Ekitaldiko bideoak eta argazkiak:



Irantzu Lekue ARTgia

“Gure kultura defendatu behar dugu, osotasunean ikusita, eta euskara gure kulturaren parte da”



Irantzu Lekue gasteiztarra da ARTgia Sorgune Aretoaren sortzailea eta zuzendaria. Urte gorabeheratsua izan du aurten eta Lazarraga Sariak aurrera egiteko indarra eman dio. Bere proiektuaren nondik norakoak azaldu dizkigu.

Zelan jaso duzue Lazarraga Saria? Zein esanahi du zuentzat sari honek?

Ilusio handia egin zigun berria jakiteak. Urte zaila izan dut pertsonalki; gauza asko gertatu dira eta zalantzan jarri dut dena. Sari hau seinale bat bezala izan da. Bidea egiten jarraituko dugu. Gauza batzuk aldatuko dira, baina euskararen erabilera ez da aldatuko. Espero dugu horretan ere eraldaketa sozial bat sorraraztea.

ARTgia Sorgune Aretoa baino gehiago dela diozue. Kontaiguzu, zer da ARTgia?

ARTgia espazio bat da, espazio zuri bat bezala jaio zen. Gauza berriak egiteko, emakumeen lanak ikustarazteko, gazteei babesa emateko eta euren lanak erakusteko aukera ematen dien espazioa. Kultura arloko disziplina anitzek lan egiteko eta sinergiak sortzeko lekua ere bada.

Bi bide jarraitzen ditugu. Alde batetik arte galeria dugu, sortzeko abiatzen dena eta beste sortzaile batzuk biltzeko espazioa dena; eta beste aldetik, enpresa bat gara, non kale ekimenak

burutzen ditugun artearen bidez eraldaketa soziala bideratzeko helburuarekin. Kanean egiten ditugun ekimenetan asko horma-irudiak dira, instalazio artistikoak. Ardatza beti euskara da. Gure lana kultura zabaltzea eta defendatzea da, eta euskara gure kultura denez, ardatz izan behar da garatzen ditugun lanak bideratzeko.

Zer eskaintzen diezue artistei? Eta arte-zaleei?

Eskaintzen diegu espazio bat euren lanak ikusgai jartzeko, saltzeko aukera ere badute eta, era berean, ahal dugunean sortzeko bekak edo produkzioa lantzeko dirulaguntzak atera izan ditugu. Arte-zaleei eskaintzen diegu ekimen artistiko parte-hartzaileetan esku hartzeko aukera. Sorkuntza bultzatzen dugu tailer ezberdinen bidez, sormen praktikekin. Enkargu artistikoak garatzen ditugu, bezeroen ideia landu perspektiba artistiko bat emanez.

Komunikazioa lantzeko beste modu bat eskaintzen duzue, zeinentzat izan daiteke baliagarri?

Guztientzat, adin guztietako pertsonentzat. Umeek, adibidez, badute sortzeko

gaitasun handi bat, ez dute beldurrik artearen bidez beraien sentimenduak, sentsazioak edo pentsamentuak adierazteko. Helduei gehiago kostatzen zaie. Praktika hauetan belaunaldi ezberdinetako pertsonak parte hartzen dute eta esperientziak partekatzen dira. Helduek izan duten bizitza transmititzea lortzen da eta pentsatzera bultzatzen duen lan bat da.

Orain arte erakunde ezberdinekin egin izan dugu lan, gai ezberdinen inguruan: eraldaketa klimatikoa, feminismoa, etab. Herria batzen duten ekimenak dira. Esperimentazioa ere lantzen dugu; errealitate areagotua lantzen duten horma-irudiak egin izan ditugu, adibidez.

Gasteizen badago artearekiko zale-tasunik? Zein mugimendu dago?

Badago, baina kostatzen da aurrera ja-

“Internetek ematen duen aukera aprobetxatzen jakin dugu eta babes handia izan da artista askorentzat”

rraitzea, batez ere garai hauetan. Babesa murrizten ari da eta kosta egiten da. Badago artea bultzatzea gustatzen zaion publiko bat ere eta artea erosteko prest dagoena.

Pandemiak nola eragin du zuen sektorean?

Proiektuak egiteko diru gutxiago dagoenez zenbait bezerok merkeago lan egitea eskatzen digute... Lan batzuk bertan behera gelditu dira eta bidean pausa egiteko garaia izan da. Ez da txarra izan, erritmo handian genbiltzan eta gelditzeko eta gauzak ondo pentsatzeko aukera eman digu, bidea zuzendu eta hausnartzeko.

Koronabirusak, baina, ez zaituzte gelditu eta ekimen ezberdinak sortu dituzue hilabete hauetan: #ARTdemia eta #ResiliART erakusketa birtualak, adibidez. Zer azpimarratuko zenuke bi ekimen horietatik?

Artistek oso ongi jaso dituzte ekimenak. Gogo handia zuten beraien lanak islatzeko eta jendea mugitu da erakusketa horietan. Salmentak egon dira eta oso pozik gaude. Internetek ematen duen aukera aprobetxatzen jakin dugu eta babes handia izan da artista askorentzat.

Aretoko erakusketekin ere hasi zarete berriz. Aurrera begira, zer proiektu dituzue buruan?

Orain Neguko Arte Azoka antolatuko dugu, laugarren aldiz. Artistek 2 edo 3 artelan erakusgai jartzen dituzte aretoan. Beraien biografiak ere zabaltzen ditugu eta erosteko aukera izango da. Aurten emakumeen lanetan arreta jar-



tzea gustatuko litzaidake eta hausnartzeko Gasteizko emakumeek esaten dutenari buruz.

Azoka honen ondoren badugu performance bat, urtarrilaren 7tik 10era bitartean. Gazte Klik Klak lehiaketa ere kudeatzen ari gara, Gasteizko Udalarekin batera. Urtarriletik otsailera erakusketa egingo dugu lehiaketako irabazle eta finalistekin. Oraingoz datorren urterako programazioa lotzen ari gara eta proposamenak jasotzeko prest gaude, aretoa horretarako dago!

Bai Euskarari ziurtagiria duzue, zer-

bitzua euskaraz ematen duzue eta euskara aintzat hartzen duzue ekimen guztietan. Zergatik egin duzue hautu hori? Zer ematen dizue euskarak?

Kanpoko lanetan hizkuntzaren erabilera desberdinen inguruan hausnartzen dugu. Oso desberdina da Berriatua lan egitea edo Gasteizen lan egitea. Asko gustatzen zait hizkuntza nola erabiltzen den ikustea eta erabiltzea. Niretzako polita da euskalki ezberdinak erabiltzea, adibidez, baita umeei euskararen erabilera sustatzea ere. Askotan gaztelaniara jotzen dute eta, erantzunak euskaraz jasota, euskaraz gehiago saiatzen dira. Niretzat euskara lana garatzeko eta disfrutatzekeo tresna bat da.

ARTgia bekak banatu izan dituzue, bekak ematerako orduan euskara baloratzea bururatu zitzaizuen, nolatan?

Sorkuntza euskaraz egiteak beste balio bat ematen du, proiektua aurrera eramateko baliagarria delako. Batzuentzat ahalegina da, baina gure oinarritzko ardatza da. ARTgian parte hartzeko asmoa badute, esfortzu txiki bat eginarazi nahi diegu euskaraz proiektua bideratzeko.

Zer gomendatuko zenieke euskara txertatzen hasi nahi duten gainerako kultur eragileei?

Pauso bat emateko esango nieke. Gure hizkuntza oso garrantzitsua da gure noritasunean eta esfortzu txiki bat egitea baliagarria dela adieraziko nieke. Gure kultura defendatu behar dugu, osotasunean ikusita, eta euskara gure kulturaren parte da. ■





LARGE-SCALE CUSTOM MACHINING



Neurri handiko mekanizazioa

Estazio poligonala, 21
BERNABE

T. 943 55 25 12 - 16
T. 943 55 28 16
info@talleresmitxelena.com
www.talleresmitxelena.com





Eneko Uriarte eta Maider Uriarte Uriarte Industrial

“Enpresei esango genieke beldurra uxatzeko eta has daitezela euskara txertatzen elementu errazetatik”

Gasteizko Uriarte Industrial enpresako zuzendaritzako kideak dira Eneko eta Maider lehengusu-lehengusinak. 2018an eskuratu zuten Bai Euskarari ziurtagiria eta euskara industriaren alorrean txertatzeko konpromisoa hartu dute. Pozik daude Lazarraga Saria jasota.

Lazarraga Saria jaso berri duzue, zorionak! Nola jaso duzue saria?

Egin dugun lanari bultzada bat da, erre-konozimendua. Sariak beti hartzen dira pozik. Gainera oihartzuna izan du sariak eta bezeroek zoriondu gaituzte, bide honetatik jarraitzeko esanez.

Zer egiten duzue Uriarte Industrialekin? Kontaiguzue zein den zuen lana eta zein proiektu dituzuen.

Hornitzaile teknikoak gara. Gurea ez da burdindegia, makinetako ordezkariak saltzen ditugu, eta pneumatikarekin eta hidraulikarekin lotutako makinak muntatu zein konpontzen ditugu. Pneumatikan eta hidraulikan adituak gara. Pabilioian badugu denda bat eta bezeroak hona etortzen dira konponketak egitera eta materiala jasotzera.

Enpresan euskara txertatzeko konpromisoa hartu duzue berriki, Bai Euskarari Ziurtagiria eskuratu zenuen 2018an. Hasi berri zarete, baina borondate irmoa duzue. Zein konpromiso hartu dituzue?

Orain arte elementu errazetatik hasi gara. Hainbat baliabide gaztelaniaz bakarrik genituenak euskaraz eta gaztelaniaz jarri ditugu: kartelak, inprimakiak, e-postako sinadura... Webgunea euskaratzeko proiektua ere badugu. Sare sozialetan ere euskaraz komunikatzen hasi gara eta bezero batzuekin ere euskaraz komunikatzen gara. Administrazioarekin ere euskaraz egiten hasi gara. Gure esku dauden elementuetan eman diogu hasiera prozesuari.

Zergatik hartu duzue lanean euskara txertatzeko erabakia?

Zuzendaritzako kideok euskaldunak gara eta gure enpresa Euskal Herrian egonda, ikusi genuen guk ez bagenuen egiten ez zuela beste inork egingo. Lanean euskara normalizatzeko modu bat da. Orain dela bi urte Lazarraga Sarietako ekitaldian izan ginen lehen aldiz, eta han ezagun batzuekin elkartu ginen. Azaldu ziguten Bai Euskarari ziurtagiria zer zen eta lanean euskara txertatzeko zein baliabide zeuden. Ez genuen horien berri ordura arte eta, Bai Euskarari

Elkartarekin pilotaje bat egin ostean, hasi gara gehixeago sartzen.

Lazarraga Sarien banaketa-ekitaldian aipatu zenuten helburu txikiekin hasi zinetela. Zein gomendio egingo zenieke euskara txertatzen hasi nahi duten enpresei?

Horixe bera egitea. Segun eta zer mailatik hasten diren, bakoitzak bere mailaren arabera neurriak hartzea. Errazenetik hasia gomendatuko genieke. Enpresa guztiak dira ezberdinak eta ezin da aholku orokorrik eman, baina esango genieke beldurra uxatzeko eta martxan hasteko elementu errazetatik, horiek euskaraz ere jarritz. Ikusarazi nahi dugu zuzendaritzatik sustatu daitekeela euskara lanean txertatzea, zuzendaritzatik ere konpromiso bat egon behar baita.

“Helburua izango litzateke bezeroei lehenengo hitza euskaraz egitea”

Zein da zailtasunik handiena?

Zailena izango da hemen denok euskaraz egitea lortzea, zerbitzua euskaraz eman ahal izatea. 14-15 langile gaude guztira eta horietatik hiruk badakigu euskaraz, eta beste bik ulertzen dute. Beste guztiek ez dakite ezer. Gustatuko litzazuke hemendik urte batzuetara dendara sartzen denari euskaraz egin ahal izatea.

Pentsatzen ari gara nola eskaini formazioa. Hizkuntzak ez dira segituan ikasten eta has gaitezke hitz batzuk erakusten, langileei laguntzeko. Helburua izango litzateke bezeroei lehenengo hitza euskaraz egitea. Langile batzuek ilusioz hartu dute erabakia, baina beste zenbaiten aldetik ez da parte-hartze handirik egon. Langileen aldetik babesa falta zaigu.

Urriaren bukaeran egin zen Arabako Enpresen Foroan parte hartu zenuen. Zer nolako esperientzia izan zen?

Lehenengo aldia izan zen horrelako foro batean parte hartzen genuena. Aukera izan genuen beste enpresa batzuetako bizipenak ikusteko. Itxura ona dauka ekimenak. Hala ere, enpresa gutxi batu ginen eta, ekimena eraginkorra izateko, enpresa gehiago beharko genituzke.

Horrelako foro batek nola lagundu ahal die enpresei euskara egunerokoan txertatzen?

Foroan bertan egin genuen eskaera bat: Arabako enpresen zerrenda bat egin beharko genuke, euskaraz norekin egin daitekeen jakiteko. Horrek asko erraztuko luke gure arteko lana.

Enpresa batzuek lan asko eginda dute eta gurea baino euskara plan aurreratuagoak dituzte. Gu izan ginen, nolabait,



adin txikikoak foro horretan. Asko dugu ikasteko.

Igartzen duzue Arabako enpresen artean badagoela euskara egunerokoan txertatzeko interesa?

Bai. Enpresak bisitatzen joaten garen, gehienbat jende gaztearekin euskaraz aritzeko aukera dago. Baina gero enpresa mailan euskara bultzatzeko ekimenak ez dira hainbeste ikusten; Gipuzkoan askoz gehiago igartzen dugu hori. Baditugu Gipuzkoako bezeroak eta eskertzen dute gu haiekin euskaraz aritzea. Gizarte-mailan euskara gutxiago ikusten da Araban eta esango genuke horregatik dela. Gizarteko arlo guztietan islatzen da hizkuntzaren erabilera.

Aurrera begira, zein erronka dituzue?

Erronka handiena maskara kentzea izango da. Pandemiak asko eragin digu.

Efektua hasi zenetik salmentak asko jaitsi zaizkigu. Geldialdi handia izan dute gure bezeroek eta hilabete gogorrak izango ditugu aurretik. Ez dago gure esku bakarrik.

Euskarari dagokionez ahaleginduko gara ahalik eta gauza gehien egiten. Datorren urteari begira helburu berriak jarri ditugu negozio mailan eta, helburu ekonomikoekin batera, euskararena da garrantzitsuetako bat. ■

“Gu izan ginen, nolabait, adin txikikoak Arabako Enpresen Foroan. Asko dugu ikasteko”



- Neumatika eta hidraulikan adituak
- Instalazio industrialen mantenimendu eta konponketak

Ordutegi jarraia 8:00-18:00

www.uriarteindustrial.com

Marco Bianchi Museo del Órgano jatetxe begetarianoa

“Ez dugu ezer asmatu, besteek egiten ez dutena egin dugu: hemengo nekazaritza, elikadura osasuntsua eta jasangarria bultzatu, bertako hizkuntza baliatuz”

Joan den urtean etapa berri bati ekin zion Gasteizko Museo del Órgano jatetxeak. Lantalde berri baten eskutik, betiko jatetxe begetarianoa gaurkotu egin zuten, bertako ekoizleen aldeko apustua sendotuz eta euskara ardatz hartuta. Euskara sustatzeko egindako lanagatik Lazarraga Saria jaso dute aurten. Marco Bianchi da hiru bazkideetako bat.



Zorionak Lazarraga Sariagatik! Nola jaso duzue saria?

Ilusio handia egin digu sari hau jasotzeak. Euskararekiko harremana oso berezia da gure proiektuan. Hiru bazkide gara, bi hemengoak eta ni italiar-euskalduna, 17 urte daramatzat Gasteizen bizitzen. Nire lagunek erabaki zuten ni euskalduntzea eta lortu dute! Nire bazkideak, Jon (Rey) eta Diego (Apellániz), euskaldunak dira. Diegok egunero erabiltzen du euskara, nik ere nire egunerokoa euskaraz egiten dut eta Jon, txikitan euskara ikasi bazuen ere, normalean gaztelaniaz bizi da. Azkenean proiektu honen bidez berreskuratu du euskara egunerokotasunean. Sari honek, nolabait, euskara bultzatzeko egin dugun ahalegin hori aintzat

hartzen du eta egindako bidea ona izan dela aitortzen digu.

Gasteizen ospetsua zen jatetxe bat hartu genuen, 32 urte zeramatzan irekita eta euskara ez zen bertan erabiltzen, ez komunikazioan, ez langileen artean ezta bezeroekiko eta hornitzaileekiko harremanetan ere. Gu sartu garenean, euskara da hizkuntza nagusia eta bezeroekiko lehenengo hitza beti izaten da euskaraz. Lortzen ari gara euskara gero eta gehiago entzutea jatetxean; esango nuke jatetxean % 80 euskaraz entzuten dela. Ez dakiten bezeroak ere ausartzen dira euskaraz zerbait esatera. Pauso hori lortu dugu, bezeroei gurean euskaraz lasai egiteko aukera ematea.

laz hasi zenuten proiektua, 1987tik martxan zegoen jatetxe begeta-

rianoaren ardura hartuta. Nolako izan zen hasiera?

Ilusio handiarekin hasi genuen proiektua. 2018ko abenduan hasi ginen proiektuaz hitz egiten eta 2019ko ekainean hartu genuen erabakia. Uda estresantearen ostean, urrian zabaldu genuen jatetxea. Ate-irekitzea oso polita izan zen, espero genuena baino jende gehiago bertaratu zen eta lanean izugarri disfrutatu genuen.

Hasi eta berehala COVID-19aren pandemia iritsi zen. Nola egin diozue aurre?

Itxita egon ginen 70 egunez eta, itxialdiaren ostean, berriro ireki genuenean jendearen erantzuna oso ona izan zen. Abuztuan oporrak hartu genituen, bi hilabete oso estresanteak izan zirelako,

hasiera berri bat izan baitzen. Irailari zailtasunaz beterik ekin genion eta, duela hilabete, berriz itxi genuenean egindako lan guztia pikutara joan delako sentazioa izan dugu.

Orain berriz zabaltzeko baimena dugu eta espero dugu arrakastaz jarraitzea.

Zuena ez da ohiko jatetxea eta saiatzen zarete zerbitzu ezberdinak eskaintzen. Zein zerbitzu eskaintzen dituzue?

Gasteizko lehen begetarianoa izan zen eta mantentzen du oraindik ere bere erreferentzia. 2020an behar zuen eguneratze bat alor guztietan: estetika, janaria, hizkuntza, komunikazioa, lokaleko musika... Lortu dugu bezeroen masa handitzea eta hurbiltzea beste sektore batzuetako jendea ere. Euskaldunentzat seguraski orain atseginagoa da, eta Gasteizen eskertzen da euskaraz lasai hitz egin ahal den leku batera joatea.

Horrez gain, bizimodu jasagarria eramateko proiektua ere bada. Arabako Bionekazaritza elkartearekin egin dugu hitzarmena egunero km0-ko eta garai-ko produktu ekologikoak eskaintzeko. Nekazari batzuekin sare txiki bat sortu dugu eta luxua da hain gertu bost baratze izatea. Gure garaia astebetekoa da, aste horretan baratzetan dagoenaren arabera prestatzen baititugu menuak. Gainera, ikusgarritasuna ematen diegu nekazariei, herri txikiei eta modu ekologikoan lurra lantzen ari direnei. Sinesten dugu gauzak beste modu batean egitea posible dela: justuagoa eta jasagarriagoa zentzu guztietan.

Etxera eramateko janaria eskaintzen ere hasi ginen eta orain espero dugu



horrekin jarraitu ahal izatea. Bezeroek bi aukera dituzte: jatetxean bertan beraien tuperrekin janaria hartzea edo etxean jasotzea. Gasteizen sortu den kooperatiba berri batekin egiten dugu etxerako bidalketa, Eraman kooperatibarekin. Bizikletaz banatzen dute gure janaria etxetik etxe. Ingurumena errespetatzea ere bada gure balioetako bat.

Berriki beste sari bat ere jaso duzue 'Zure ideiak balio du' XVI. Lehiaketako nekazaritzako elikagaien arloko ekimen onenaren Eroski saria. Horrelako sariak nolako bultzada ematen diote zuen proiektuari?

Sariak baieztatzen digute gauzak ondo egiten ari garela. Lehiaketa horretara gure proiektua azaltzera joan ginenean esan genien gurea ez zela proiektu berri bat, edo zerbitzu berri bat, edo aplikazio berri bat, baizik eta gauzak egiteko beste modu bat. Gurea ekintza da gehiago. Posible da gauzak egitea modu ezberdin batean, gu egiten ari gara eta hori izan zen lehiaketara eman genuen mezua. Lazarraga Sariarekin ere gauza bera sentitzen dugu. Ez dut uste gure proiektua super ideia bat denik, ez gara Einstein edo Bill Gates, ez dugu ezer asmatu, besteek egiten ez

dutena egin dugu: hemengo nekazaritza, elikadura osasuntsua eta jasagarria bultzatu, bertako hizkuntza baliatuz. Hori izan beharko litzateke normala.

Zein gomendio egingo zenieke euskarara txertatzen hasi nahi duten enpresei, jatetxeei...?

Erabili, erabili eta erabili, bakoitzaren neurrian. Nik Gasteizen ikasi nuen euskara, akats asko egiten ditut, baina egunero erabiltzea da gakoa: ogia erostera joandakoan, kafea hartzera, familiarekin... Txip aldaketa hori egin behar da. Euskaldunen poztasuna sentitu nuen ahalegin hori egiten nuelako, baina beraiek lortu dute nik euskara horrela sentitzea. Horregatik eskertzen dut nire lagunaren pazientzia, lortu baitute ni euskararekin eta hizkuntzaren atzean dagoen guztiarekin maitemintzea.

Aurrera begira, zein asmo dituzue?

Beti pentsatzen ari gara proiektu berrietan. Bidean egon dira kolaborazio batzuk jatetxe batekin, Baias garagardoa-ekin eta Candido Besa upategiarekin, adibidez. Postre berezi bat ere asmatu dugu, jatetxean dastatzeko zein etxera eramateko.

Hasieratik gure buruan zegoen jatetxea sentsibilizaziorako leku bihurtzea, ekologia eta sukaldaritzaren inguruan hitzaldi batzuk egiteko. Koronabirusak markatu digu erritmoa eta horiek antolatzen hasiko gara berriz, udaberrira begira. ■

“Pauso hori lortu dugu, bezeroei gurean euskaraz lasai egiteko aukera ematea.”

MUSEO del ÓRGANO

RESTAURANTE VEGETARIANO JATETXE BEGETARIANO

Manuel Iradier 80, 01005, Vitoria-Gasteiz (Araba) - 945264048 - museodelorgano.com - @museodelorgano



Iban Sánchez Bertako Igogailuak

“Enpresak saia daitezela euskara komertzialki sustatzen, errentagarritasuna lortzeko balioko baitie”

Bertako Igogailuak ezagun egin da azken boladan, bai bere sektorean eta baita sektoretik kanpo ere. Euskara aintzat hartzea erabaki zuten enpresa sortu zutenean eta horrek errentagarritasuna ematen duela dio Iban Sánchez Bertako Igogailuetako komertzial buruak. Lazarraga Saria jaso dute aurten.

Zorionak Lazarraga Sariarengatik! Nola jaso duzue saria?

Guretzat oso garrantzitsua izan da, egunero egiten dugun lanari errekonozimendua izan da. Inoiz ez dugu planteatu gure lanean gaztelaniaz bakarrik jardutea, dena euskaraz eta gaztelaniaz egiten dugu. Enpresako komertzial moduan, niri egokitu zait enpresa barruan lan hau. Konturatu naiz merezi duela eta aproposa dela horrela lan egitea.

Hego Euskal Herri guztian eskaintzen duzue zerbitzua. Zein da zuen zerbitzuaren filosofia?

Gure filosofia da igogailuen mantenua eskaintzea eta gardenak izaten saiatzea. Gure sektorea oso opakua da, betiko enpresak daude eta ia ez dago konpetentziarik. Bizilagun-komunitateek aukeratu ahal izatea eta konpetentzia sustatzen ari gara. Orain dela gutxi arte, adibidez, sektore honetan normala zen 10 urteko kontratuak egitea; gu urtebeteko kontratuak eskaintzen hasi ginen eta besteek ere kontratu luze horiek moztea lortu dugu. Nahi dugu-

na da gure zerbitzuaren prezioak merkatuarekin bat etortzea, prezio normalak izatea. Guk, adibidez, prezioak KPI orokorraren arabera igotzen ditugu eta sektoreko gainerako enpresek sektorean bertan erabiltzen den KPlaren arabera. Ez zaigu egokia iruditzen jendeari soldatak KPI baten arabera igotzea eta gure zerbitzuari indize altuagoa jartzea. Ordutegiari dagokionez 24 orduko zerbitzua eskaintzen dugu abisu guztientzat eta igogailua gelditu ez uzteko saiatu egiten dugu.

Bezeroaren gogobetetzea bilatzen duzuela diozue. Enpresa gehienek asmoa izango da hori. Zein da zuen sekretua?

Enpresa guztiok saiatzen gara horretan, baina komertzial bezala bi aukera ditugu: esaten duguna bete edo bezeroei pentsaraztea benetan berak nahi duena lortzen ari dela, hala izan gabe. Etika pixka bat izan behar da eta bezeroari informazioa garbi eman behar zaio. Ez da etikoa negoziatzera ohituta ez dagoen pertsona heldu bat, adibidez, engainatzea. Horregatik, ez dugu

sekula onartzen bezero bat guregana etortzea aurretik bizilagun-komunitateko bilera egin gabe. Gauza bat da dirua irabaztea eta beste bat da etikaren marratik pasatzea.

Bezeroek zergatik aukeratzen dute Bertako Igogailuak?

Bertakok freskotasuna ekarri du sektorerara. Orain arte ohikoa zen sektorean kontratu luzeak sinatzea eta gero bestelako informazioak ez izatea. Komunitateetan askotan urtetik urtera gauza gutxi begiratzen dira eta enpresa asko horretaz aprobetxatzen dira. Bezeroek kontratuak irakur ditzatela lortu dugu eta irakurtzen dituztenean, konturatu dira gehiegi ordaintzen ari direla. Hala, lortu dugu konpetentziak ere prezioak jasatea.

“Etika pixka bat izan behar da eta bezeroari informazioa garbi eman behar zaio”



Komunikazioan ere apustu handia egin duzue. Zer onura ekarri dizue-te horrek?

Komunikazioaren bidez nahi izan dugu jendeak gu hobeto ezagutzea eta ikusaraztea mantenutik kanpora zer egingen dugun. Igogailuekin zerikusi gutxi du azken hilabeteotan egin dugunak. Gure sarreraren % 4 edo % 5 banatu egiten dugu beste elkarte edo erakunde batzuen artean. Orain hiru ardatz ditugu: kirol egokitua, emakumezkoen kirola eta euskara. Hala, orain elkarte edo ekimen hauek babesten ditugu: Hondarribia Arraun Elkartea, Gaztedi Rugby Taldea, Javi Conde Atletismo Egokituko Taldea, Harrikada Curling Taldea eta Korrika. Guztiekin hiru urteko planteamendua egin dugu lasai egon daitezen ekonomikoki.

Kanpora begira bakarrik ez, barrura begira ere langileen ongizatea bilatzeko lan handia egin duzue. Zeintzuk dira langileen ongizaterako gakoak?

Langileen lan-karga ondo moldatzen dugu. Gure enpresak duen gauza on bat da bazkideak langileak ere badi dira. Lanean oso onak diren teknikoek sortutako enpresa da eta lanaren nondik norakoak ondo ezagutzen dituzte jabeek. Enpresan dagoen jabe-langile erlazioa oso estua da.

Kooperatiba bezala hasi ginen, baina sektorean izan genituen zenbait presio direla medio, SL bihurtu ginen. Gaur egun sei bazkide ditu enpresak.

Nola doakizue pandemiaren urte hau?

Oso ondo. Zorte handia izan dugu lanean normal jardun dugulako. Ezin gara kexatu, batez ere ikusita beste sektore batzuk nola dauden. Hasieran beldur handia zegoen langileen artean, baina joan gara neurriak hartzen eta egokitzten.

Hasiera-hasieratik euskara aintzat hartu duzue zuen estrategian, ez da ohikoa zuen sektorean. Zerk bultzatu zaituzte horretara?

Komertzialki pentsatzen hasi ginenean, oso argi genuen ezin genuela dena gaztelaniaz egin, enpresa gehienek moduan. Bezeroek informazioa bere hizkuntzan jasotzeko eskubidea dute eta dena euskaraz eta gaztelaniaz eskaini behar zaiela erabaki genuen. Langile guztiek ez dakite euskaraz, baina asistentzia euskaraz nahi duenak jaso du. Pausu guztietan zerbitzua euskaraz ematen saiatzen gara.

Zein gomendio egingo zenieke euskarara txertatzen hasi nahi duten enpresei?

Gure sektorean badaude enpresa batzuk euskararekiko interes gutxi du-

tenak. Zerbitzua ematen ari bazara Debagoienean edo Gasteizen, adibidez, derrigorrez euskaraz eman behar duzu zerbitzua. Miranda de Ebroko eta Oñatiko etxeetako buzoietan ezin duzu publizitate berdina bota, ez da eraginkorra. Komertzialki ez duzu ezer lortuko. Euskaldunok eskatzen duguna da gutxienez euskaraz eta gaztelaniaz jasotzea informazioa. Enpresei esango nieke saia daitezela komertzialki euskarara bultzatzen, errentagarritasuna lortzeko balioko baitie.

Aurrera begira, baduzue proiektu berririk?

Datozen hiru urteerako planteamendua egin dugu. Bezero gehiago izan nahi ditugu, baina ez gehiago izateagatik bakarrik, baizik eta lanpostu berriak sortzeko. Enpresan oso garantzitsua da zerbitzu hobea emateko langile gehiago izatea. Hala, zerbitzu hobea emateaz gain, lana errazago banatuko da eta gusturago egongo dira langileak. Gaur egun 1500 igogailu-kontratu ditugu eta, hiru urteren buruan, 2000ra iristea da helburua. ■

“Bezeroek informazioa bere hizkuntzan jasotzeko eskubidea dute”

24 ORDUKO ZERBITZUA

GSM LARRIALDI TELEFONO INSTALAZIOA ETA KLOTAN TELEFONO LINEA BARNE

LED ARGIEKIN ETA EFIZIENTZIA ENERGETIKOA

bertako
igogailuak | ascensores

PIEZAK BARNE

INDUSTRIAKO IKUSKAPENAK ANTOLATU ETA ATENTZIOA EMATEA

ESKULANA ETA JOAN ETORRI GUZTIAK

OROTARIKO ZERBITZUA

100 €-tatik / hileko

Aruntza 70€-tatik / hileko

Euskal Herria hobetzeko prest?

Bertako enpresak kirola, dantza, kirola, eta ikusialak babesten ditu, elkarrekin Euskal Herria hobeto erakitzeko.

Garaia Berrikuntza Gunea

20.500 Arasate

943 903 450

Info@bertako.eus

www.bertako.eus

ZIURTAGIRIAREN 3 MAILAK

1. "LURRIK ARI BERRIAN" ZIURTAGIRIA

Lurrik ari berria izan daiteke, baina ez da beti. Berria izan daiteke, baina ez da beti. Berria izan daiteke, baina ez da beti.

2. "ZERBITZUA LURRIK ARI" ZIURTAGIRIA

Zerbitzuaren kalitatea bermatu, baina ez da beti. Zerbitzuaren kalitatea bermatu, baina ez da beti. Zerbitzuaren kalitatea bermatu, baina ez da beti.

3. "ZERBITZUA ETXARA LURRIK ARI" ZIURTAGIRIA

Zerbitzuaren kalitatea bermatu, baina ez da beti. Zerbitzuaren kalitatea bermatu, baina ez da beti. Zerbitzuaren kalitatea bermatu, baina ez da beti.

01 PERITSOEN KONTROLA

02 ERAGONGEAREN IRUDIA

03 KANPO KONTROLAKETA

04 BARNE KONTROLAKETA

05 PERTSOAREN KONTROLA

Bai Euskarari Ziurtagiria eskurateko garaian baliatzen den fitxa ere, ziurtagiria duten entitateek intranetean dutena, EMEk zehazten dituen mailen arabera eratu da. Horrela bada, atal guztiak EME eta bere ardatzak eta mailak aintzat hartuta antolatu dira.

01

**PERTSONEN
HIZKUNTZA
GAITASUNA**

bai
ezkerrean

**zerbitzu
erakunde**

- 1. **Taldea Hargailak/ak:** ezkerreko zerbitzuak **gaitasun** garapenera laguntza dute **erakunde** erakunde **erakunde** garapenera.
- 2. **Erakunde Hargailak/ak:** gaitasun garapenera laguntza dute **erakunde** erakunde **erakunde** garapenera.
- 3. **Erakunde Hargailak/ak:** gaitasun garapenera laguntza dute **erakunde** erakunde **erakunde** garapenera.

bai
eskuinean

**zerbitzu eta
erakunde**

- 1. **Laguntza Hargailak/ak:** gaitasun garapenera laguntza dute **erakunde** erakunde **erakunde** garapenera.
- 2. **Erakunde Hargailak/ak:** gaitasun garapenera laguntza dute **erakunde** erakunde **erakunde** garapenera.

*Gaitasun garapenera laguntza dute **erakunde** erakunde **erakunde** garapenera.

02

**ERAKUNDEAREN
ERAKUNDE**

- 1. **Erakundearen erakunde:** gaitasun garapenera laguntza dute **erakunde** erakunde **erakunde** garapenera.
- 2. **Erakundearen erakunde:** gaitasun garapenera laguntza dute **erakunde** erakunde **erakunde** garapenera.
- 3. **Erakundearen erakunde:** gaitasun garapenera laguntza dute **erakunde** erakunde **erakunde** garapenera.
- 4. **Erakundearen erakunde:** gaitasun garapenera laguntza dute **erakunde** erakunde **erakunde** garapenera.

*Gaitasun garapenera laguntza dute **erakunde** erakunde **erakunde** garapenera.



BABESTU KOMUNITATEA

Non kontsumitu dezaket bertan eta euskaraz?

baieuskarari.eus/eu/ziurtagiridunak



Geroa
elkarrekin
eraikiz
baieuskarari.eus



Kontsultatu irizpideak eta
ziurtagiriaren inguruko
ohiko galderak:



LANsarean
bilalan

**Euskarazko
lan-ataria**

Lan bila zabilta?
Lana eskaintzen duzu?

lansarean.eus

[@lansarean](https://twitter.com/lansarean)

[in lansarean](https://www.linkedin.com/company/lansarean)

BERRIA!

**OPOSAKETETARAKO
MATERIAL BILTEGIA
ETA GALDETEGIAK**



Gera
elkarrekín
erakiz
baieuskarari.eus

Euskararen Mapa osatzen, urtez urte

Gernika-Lumoko eta Zarauzko udalekin ditugun hitzarmenei esker, urtero egiten dugu bi herri horietan Bai Euskarari ziurtagiria duten entitateekin ekitaldia. Covid-19aren ondorioz ekitaldirik ezin izan dugu egin aurten, baina aitortu nahi dugu, garai zail hauetan ere, Gernika-Lumoko eta Zarauzko enpresa, saltoki eta entitateek euskaraz lan egiteko eta bizitzeko aukerak sortzen egiten duten lana.



Gernika-Lumon, Bai Euskarari Elkartek Gernika-Lumoko Euskara sailarekin, Busturialdean euskaraz bizi elkartarekin, Gernikako AE-Krekin, Artez Euskara Zerbitzuarekin eta Seber Altube Ikastolarekin elkarlanean antolatu ohi du ekitaldia. Aurten ekitaldirik ez, baina entitateei aitorpena egiteko Bai Euskarari Ziurtagiria eskura eman diegu eta, horrez gain, entitateen inguruko informazioarekin kartelak jarri ditugu herrian zehar.

Zarauzen, Bai Euskarari Ziurtagiriaren hitzarmena sinatzeko ekitaldia egin ohi dugu udaletxean, ziurtagiria duten entitateekin batera. Zarautzen 31 establezimenduk dute Bai Euskarari Ziurtagiria eta orain dela 15 urte sortu zen Zarauzko Udalaren eta Bai Euskarari Elkartearen arteko hitzarmen honen bidez, horietako 28 babesten dira.

Jaso ezazue gure aitorpenik handiena. Animo eta besarkada bana denoi!

#GeroaElkarrekinEraikiz

Elkar zaintzeko garaia da, komunitatea babesteko garaia. Aurrera egiteko eta babesteko beharrezkoa dugu elkarrekin egotea, elkarrekin lan egitea, elkar zaintzea eta elkarrekin saretzea, #GeroaElkarrekinEraikiz izango baitu euskarak presentzia handiagoa.

Bai Euskarari Elkartean uste dugu garai hauetan bertakoa, gertukoa zaindu behar dugula, eta tokikoetan tokikoena dugu euskara. Bila ezazu zure herrian euskaraz zerbitzua ematen dizun jatetxe hori. Jarrai dezagun #GeroaElkarrekinEraikiz, euskaratik eta euskaraz.

EUSKARA
KULTURA
HERRIAREN GEROA



Enpresarean Azoka nahieran!

Iraunkortasuna, hazkunde ekonomikoa, inklusioa eta hizkuntza aniztasuna izan genituen mintzagai Enpresarean Azokaren bosgarren edizioan. #EnpresareanAzoka2020 galdu bazenuen, nahieran ikusteko aukera eskaintzen dizugu: hitzaldiak, solasaldiak, esperientzia-trukeak, argazkiak, bideo-laburpena...



Enpresarean
Azoka 2020



Entitateon txokoa, Bai Euskarari intranetean

Bai Euskarari komunitatea osatzen duzuen kideekin komunikazioa erraztu eta baliabide berriak eskaintzeko asmoz iaz berriren genuen *Baieuskarari.eus* webguneko intraneta. Entitateok bertan lan egiteko aukera duzue, zuen konpromisoen jarraipena eginez, dagokizuen ziurtagiriaren irudia deskargatuz edo Bai Euskarari Elkartearen gainerako proiektuetan parte hartuz, adibidez.

Entitate bakoitzak jaso duzuen erabiltzaile-izen eta pasahitzarekin izango duzue bertan sartzeko aukera. Ez baduzue jaso edo galduta baldin baduzue, idatzi info@baieuskarari.eus helbidera.

Sartu Bai
Euskarari
intranetean:



Arabako enpresen arteko sarea sortu nahi dute, euskara sustatzeko

Arabako Enpresen Foroa abiatu zen joan den urrian. Bai Euskarari Elkarteak gidatuta, hizkuntza kudeaketarekin kezka duten Arabako zenbait enpresatako ordezkariak bildu ziren Gasteizko Europa Biltzar Jauregian. Eusko Jaurlaritzak eta Gasteizko Udalak Arabako Foru Aldundiarekin bat egin dute Lanabes - Araban Euskara Lanean programari bultzada emateko; foro hau izan da martxan jarri duten proiektuetako bat.

Arabako Lurralde Historikoan kokatuta dauden eta hizkuntza kudeaketarekin nolabaiteko kezka duten enpresen arteko foro bat da, besteak beste, ardura hauek izango dituen: euren jardunaz duten jakintza, gogoetak eta kezak partekatzea; elkarrengandik ikastea; jakintza berria sortzea eta Arabako Lurralde Historikoaren alor sozioekonomikoan euskararen erabilera hobetzen laguntzea.

Lehen hitzorduan ondoko enpresek parte hartu zuten: EGA Master, SEA, El Corte Inglés, Artepan - Mamia, Orona-Electra Vitoria, Uriarte Industrial eta RPK.

**GURE KULTURAREN
KOLORE GUZTIAK**

LEITZARAN
grafikak

Gudarien Hiribidea 29
20140 Andoain (Gipuzkoa)
Tf: 943 30 35 10
www.leitzaran.eus
grafikak@leitzaran.eus

• URTE BERRI ON! •

2021

ELKAR ZAINTEKO GARAIA DA

KOMUNITATEA
BABESTEKO ETA AURRERA
EGITEKO GARAIA.
HORRETARAKO,
BEHARREZKOA DUGU
SARETZA ETA ELKARREKIN
LAN EGITEA.

bai
euskarari

Geroa
elkarrekin
eraikiz
baieuskarari.eus

